

# **NEGOZIO-GUNEAK**

## **NEGOZIOAREN DEFINIZIOA**

Bulegoak alokatzea, enpresek beren jarduera garatzeko dituzten premietara egokitutako zerbitzuak eskaintzen dituzten eraikinetan.

## **MERKATU-DATUAK**

Negozio-gune hauek bulegoak eskaintzen dituzte, normalean alokatuta, enpresen premia estaltzeko egokituta eta prestatuak dauden eraikinetan. Hauen hazkundera esanguratsua izan da hiri handietan, bulegoen eskaintza urria delako eta kostuak, berriz, handiak.

Negozio-gune hauekin batera enpresa-mintegiak daude; hauek tarifa txikiagoak dituzte, neurri batean diruz lagunduta baitaude. Hauetaz, ordea, enpresa sortu berriak eta baldintza batzuk betetzen dituztenak bakarrik balia daitezke, eta aldi batez bakarrik egon daitezke bertan. Beraz, negozio-guneentzat ez dira zuzeneko lehiakideak, segmentu oso jakin batera zuzenduta baitaude, normalean ez duena merkatuko prezioen arabera lokal batean kokatzeko behar besteko ahalmenik.

EAEko Negozio Guneak, Negozio Guneen Espainiako Elkartearen ([www.acnspain.com](http://www.acnspain.com)) sartutakoak, honako hauek dira:

<b><u>Negozio-gunea</u></b>	<b><u>Helbidea</u></b>	<b><u>Telefonoa</u></b>
Kabe Negozio Gunea	Heros, 28-1 <sup>a</sup> Esk. Bilbo	94 425 51 50
Kabe Negozio Gunea	Hurtado de Amezaga, 48-1 <sup>a</sup> Ezk. Bilbo	94 470 00 86
Spankor Negozio Gunea	Maximo Agirre, 12-1 <sup>a</sup> Esk. Bilbo	94 439 98 60
Spankor Negozio Gunea	Juan Ajuriagerra, 9-6. planta Bilbo	94 423 40 35
Seavi Negozioen Nazioarteko Gunea	Portal del Rey k., 20-behea. Gasteiz	945 267 100
Seavi-Deba Negozio Gunea	Portal de Gamarra k., 1 (DEBA ERAIKINA) Gasteiz	945 122 255
ICS-Intxaurren Zerbitzu Gunea	Baratzategi, 8-behea. Donostia	943 293 429

## **ENPRESA-PLANA**

### **Marketin-plana**

#### **□ Zerbitzua**

Negozio-guneek abantailak eskaintzen dizkiete beren bulegoetan kokatzen diren enpresei: segurtasuna eta zaintza, ate-zaintza, aparkatzeko erraztasuna, kalitatezko akaberrak, oso ondo egokitutako instalazioak eta telekomunikaziotako azpiegiturak, besteak beste. Normalean eraikinak modernoak eta enblematikoak dira, eta beraz lanbide-kaudimenaren eta nolabaiteko kategoriaren irudia ematen diete bertan jartzen diren enpresei.

Negozio-guneak enpresa-gune pribatuak dira, beste enpresa batzuen zerbitzura daudenak, non funtsezko ideia espazioa ustiatzea baita, eta zenbait zerbitzu komun izatea, enpresak kontsumitzen duena bakarrik ordain dezan, eta hori guztia berehala eta inbertsiorik gabe.

“Business Centers”ek bezero diren enpresei nazio eta nazioarteko dimentsioa ematen diete, eta beren neurrirako zerbitzu-sorta zabala eskaintzen diete, enpresa-irudia duten bulegoak errentan emanez ordu, egun edo hilabetetarako.

Leku ekipatuak tamaina eta ezaugarri askotakoak dira, bezeroen premietara egokituak, ondorengo zerbitzu hauek barne:

- Telefono bidezko arreta
- Erantzun pertsonalizatua zeure enpresaren izenarekin
- Bisitak hartzea
- Arreta pertsonalizatua zeure bisitentzako
- Gutunak hartu eta sailkatzea
- Elkartutako gune gehienetan 24 orduko zerbitzua; kontratazioan malgutasuna, kapital-inbertsiorik gabe
- Kontsumoak (argindarra, ura, aire-girotxea, ate-zaintza, eguneroko garbiketa, komunitate-gastuak)

Bulego birtualak telefono eta fax-zenbaki bat eskaintzen du eta prestigiozko helbide bat, bertan egon beharrik gabe. Aukera honek, nonahi —herrialdean ala atzerrian— zaudela ere, telefono bidez lan egiteko aukera ematen dizu.

Bulego birtualak hiru motakoak dira:

- Deiak
- Gutunak
- Osoa

Gainera, gune hauek tamaina askotako lekuak dituzte, aukera-aukerakoak bilerak, prestakuntza-saioak eta erakusketak egiteko. Orduka edo egun batzuetan erabil daitezke. Gela hauetan ikus-entzunezko tresnak jar daitezke aukeran: TB, bideoa, erreproiektorea, bideokonferentzia eta catering.

Oro har, Negozio Gune hauek profesional gaituak eta eleaniztunak kontratatzen dituzte beren bezero diren enpresekiko harremanak kudeatzeko:

- Deiei erantzutea
- Bisitak hartzea
- Mezulari eta abarri harrera egitea
- Itzulpenak
- Mailing-a
- Telemarketin-a
- Hotelak, bidai txartelak, jatetxeak erreserbatzea
- Laguntza: fotokopiak, faxak, bulego-materiala

Ekipamendu eta komunikazioei dagokienez, aipagarriak dira:

- Kableatu egituratuko sistemak, bere intranet eduki ahal izateko. Internet-ekiko konexioa.
- Telefono-linea analogikoak, RDSI, ADSL.
- Deien transferentzia zuzena munduko alde guztietara.
- Erantzun pertsonalizatua, ahots-postontzia enpresaren izenarekin elkartutako negozio-gune gehienetan.
- Inprimagailuak koloretan eta laser bidez, scannerra, fotokopiagailua, faxa, koadernagailua.

□ *Sustapena*

Gure bezero izan daitezkeen artean ekintzaileak daude, penintsulako eta beste herrialde batzuetako zerbitzu-enpresen ordezkariak, eta aldi baterako egoitza behar duten enpresak, besteak beste. Orrialde horiak; publizitatea zenbait forotan eta geure web gunea dira negozio-gune bateko lekuak merkaturatzeko baliabiderik ohikoenak.

### **Plan Operatiboa**

□ *Kokapena*

Garrantzitsua da eraikinak bista onak eta autoak uzteko erraztasuna eskaintzea.

□ *Lokala*

Bulegoetarako egokia izan behar du eta gune bereziak izan harrera eta administrazioarako, banako bulegoak enpresentzat, bilera eta hitzaldietarako gelak, prestakuntza-gelak, lekua prest fotokopiagailu, fax eta abarretarako, eta behar den guztia zerbitzurik ohikoenak eskaintzeko (helbideratze soziala eta merkataritza-helbidea).

□ *Ekipamendua*

Funtsezko elementua da eta eskaintzen den produktu nagusiaren parte da. Honela bada, eraikina egokitu egin behar da instalazio tekniko bikainak eskaintzeko, goi kalitateko akaberak, aire girotua, ahots eta datuen kableatu egituratua, bulego-altzariak harrera-leku, gune komun eta bilera-lekuetarako.

### **Giza baliabideen plana**

Teknikariak eta informatikariak behar dira, harreragileak eta administrari laguntzaileak, eskaintzen diren zerbitzuak ongi emateko behar adina. Zaintza eta segurtasuna edo garbitasuna bezalako zerbitzuak azpikontratatzeko aukera ere egin daiteke.

### **Inbertsio-plana**

Negozia abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea komeni da eta finantzaketa-iturriak zehaztea.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

### **Administrazio-izapideak**

**EAE:** Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej->

[gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es](http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es)

<http://www.ej->

[gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1](http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1)

### **Enpresa bat sortzeko informazio osoa**

<http://www.creaciondempresas.com/>

### **Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak**

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

### **IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK**

#### **□ *Irudia zaintzea***

Eraikinak eta bere instalazioek kalitate-marka duen irudia eskaini behar dute. Eraikin berezi edo enblematikoaren ukitua izan behar du. Gainera, funtsezkoa da bertara iristeko eta autoak uzteko erraztasunak ematea. Ahal bada, erdialdeko lekuak eta enpresa eta denda askoko guneak dira onenak.

#### **□ *Prezioetan malgutasuna***

Ematen diren zerbitzuak tarifa bidez ordaindu behar dira eta bulego-errentaren batez besteko prezioa hartuko dute erreferentzia gisa. Kontratazioa hilabeteka

edo denboraldi laburragoetarako ere egin beharko da, denbora guztirako edo orduka, zerbitzu guztiak edo bakar batzuk barne direla.

□ *Teknologian inbertitzea*

Zentroak teknologiarik aurreratuena izan behar du ofimatikan, komunikazioetan (ADSL, telefonia-ordenagailuaren integrazioa, ahotsa ezagutzeko sistema automatizatuak) eta Interneten. Hauxe da negozio-guneetan kokatu nahi duten enpresek gehien balioesten duten alderdietako bat.

## **HELBIDE INTERESGARRIAK**

ACN. Negozio-guneen Espainiako Elkarte

<http://www.acnspain.com>

### ***BUSINESS RESOURCES OF THE SOCIAL SCIENCE INFORMATION GATEWAY/GIZARTE-ZIENTZIAREN INFORMAZIO-ATARIKO NEGOZIO-BALIABIDEAK***

<http://www.sosig.ac.uk/business/>

**Laburpena:** Negozio-eremuko baliabideen zerrenda mundu-mailan: estekak, artikulua, datu-base bibliografikoak, enpresak, gobernu-argitalpenak, aldizkariak, eztabaida-taldeak, albisteak eta ikertegiak.

### ***CENTER FOR INTERNATIONAL BUSINESS/NAZIOARTEKO NEGOZIOEN GUNEA***

**URL:** <http://center.buffnet.net/netsites.html>

**Laburpena:** The Center for International Business delakoak nazioarteko ekonomia eta finantza-baliabideen bilduma aurkezten du, azpi-kontinenteen arabera antolatuta. Eskualdea aukeratu ondoren, baliabideen aurkibidea ematen du herrialdeka.

### ***OBCAI-KO KIDE DIREN ELKARTEEN DIREKTORIOA (OFFICE BUSINESS CENTER ASSOCIATION INTERNATIONAL)***

**URL:** <http://www.obcai.org/cgi-bin/search.cgi>

**Laburpena:** OBCAI (Nazioarteko Negozio Guneen Elkarte)ko kide diren elkarten direktorioa, izen, herrialde edo hiriaren arabera eskura daitezkeelarik. Izena, harremanetarako pertsona, posta-datuak, tel/faxa, posta elektronikoa eta, enpresak baldin badu, web orriaren berri ematen du.